

IDAZKARI OROKORARREN 11/2018 TXOSTENA

Gaia: udal arkitekto teknikoaren lanpostua hornitzea eta lan poltsa eratzeko errekurtsua

Jurdana Uriarte Lejarraga, Bermeoko Udaleko idazkari nagusiak, martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak -Toki Administrazioetako Gaikuntza Nazionaleko Funtzionarioen Araubide Juridikoa arautu duenak- 3.d.4. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritz, hurrengo **TXOSTENA** igorri dot:

1. Aurrekariak

Lehena.- 2018ko uztailaren 2an epaimahaiak Udal arkitekto teknikoaren lanpostua hornitzeko eta lan poltsa eratzeko deialdiko hautagaien hurrenkera zerrenda proposatu zuen.

Bigarrena.- Idazkaritza Sail honetara Laura Varela Suances andreak egindako gora jotze errekurtsua aurkeztu da, non esaten den udal arkitekto teknikoaren lanpostua hornitzeko eta lan poltsa eratzeko 3. ariketa derrigorrezkoa dela eta epaimahaiak proposatutako pertsona eta beste bi pertsonak ez direla aurkeztu ariketa horretara.

2. Oinarri juridikoak

2.1. Aplikagarria den araudia

- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legea-
- Apirilaren 18ko 781/1986 Toki Araubidearen alorrean indarrean dauden lege xedapenen Testu Bategina
 - Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina
 - Uztailaren 6ko 6/1989 Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea
 - Ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretua, toki administrazioaren funtzionarioak hautatzeko prozedurak jarraitu beharreko oinarrizko arauak eta gutxieneko programak ezartzen dituen

- Modu osagarrian, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretua, Estatuko Administrazioaren Zerbitzuan Langile izateko, eta Lanpostuen Jabetza eta Lanbidea Sustatzeko Araudi Orokorra onartzen duena
- 2017ko azaroaren 21ean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (222 zk.) argitaratutako udal arkitekto teknikoaren lanpostua hornitzeko eta lan poltsa eratzeko oinarriak

2.2. Azterketa juridikoa

Lehen.- Udal arkitekto teknikoaren lanpostua hornitzeko eta lan poltsa eratzeko oinarrien zortzigarren atalean, aukeraketa prozedua arautzen denean, adierazten da oposizio aldiko hirugarren ariketa nahitaezkoa eta ez baztertzaila dela.

896/1991 Errege Dekretuaren 3.artikuluak dio "Los procedimientos de selección se registrarán por las bases de convocatoria que apruebe el órgano correspondiente de la Corporación para cada una de las escalas, subescalas y clases de funcionarios".

Hori horrela, esan behar da oinarriak hautaketa prozesua arautuko duten marko juridikoa direla, hau da, oinarriok prozesuaren irizpideak, ekintzak eta edukia arautuko dutela.

364/1995 Errege Dekretuaren 15.4. artikulua dio "Las bases de las convocatorias vinculan a la Administración y a los Tribunales o Comisiones Permanentes de Selección que han de juzgar las pruebas selectivas y a quienes participen en las mismas."

Oinarrien izarea juridikoari dagokionez, jurisprudentzia bateratuak dio oinarriok "oposaketaren legea" direla. Izan ere, Auzitegi Gorenaren 1989ko maiatzaren 19ko epaiak dio oinarriok lehiaketa-oposaketaren legea direla eta lotesten diotela, bai hautagaiei, bai administrazioari. Zentzu berean, Auzitegi gorenaren 2002ko abenduaren 9ko epaiak (985/2000 errekurtsio zk.) eta 2008ko urtarrilaren 14ko epaiak (1826/2003 errekurtsio zk.) diote behin oinarriak irmoak eta onartuak direnean lotesten dituztela, bai hautagaiak, bai administrazioak. Izan ere, oinarrien izaera loteslea berretsi zuten Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiak 2000ko maiatzaren 31ko (3995/1994 errekurtsio zk.) eta Entzutegi Nazionalaren 2002ko martxoaren 27ko epaiak (11/2002 errekurtsioa).

Hortaz, bai hautagagiek, bai udalak, bai epaimahai kideek oinarrietan ezarritakoari lotuta daude eta oinarriok errespetatu behar dituzte.

Bigarrena.- Ariketa bat nahitaezkoa izateak esan nahi du hautagaia aurkeztu ezean, prozesutik kanpo gelditzen dela. Izan ere, nahitaezkoa izateak RAEren arabera, esan nahi du *"Dicho de una cosa: Que obliga a su cumplimiento y ejecución"*.

3. Ondorioak

Udal arkitekto teknikoaren lanpostua hornitzeko eta lan poltsa eratzeko oinarrietan adierazitakoaren arabera, hirugarren ariketa "Lanpostuaren eginkizun guztiak garatzeko izangaiak duen gaitasun tekniko-profesionala, taldeko lana eta deitutako lanpostuko funtzioei egokitzapena neurtzeko elkarrizketa bat egingo da. Elkarrizketari laguntzeko beharrezkoa balitz, aldez aurretik egokiak diren froga psikoteknikoak egin beharra erabaki ahal izango du epaimahaiak" nahitaezkoa da, beraz, aurkeztu ez diren hautagaiak prozesutik kanpo geldituko dira.

Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe. Hori horrela, Alkatezak egoki deritzona erabakiko dau.

Bermeon, 2018ko uztailaren 10ean

Idazkaria,

Jurdana Uriarte Lejarra



Jasota, 2018-07-10

Alkatea,

Idurre Bideguren Gabantxo

